

txikizkako

Merkataritza

el Comercio

minorista

2000


EUSKAL AE / C.A. DE EUSKADI



Eustat

Txikizkako merkataritzak euskal BPGari egiten dion ekarpena. %

Aportación del comercio minorista al PIB vasco. %



Txikizkako enpleguaren banaketa

Distribución del empleo minorista

	EUSKAL AE / C.A. DE EUSKADI	Araba / Álava	Bizkaia	Gipuzkoa
TXIKIZKAKO MERKATARITZA / COMERCIO MINORISTA	61.719	8.590	32.832	20.297
Elikagaiak / Alimentario	23.679	3.123	12.507	8.049
Elikagaiez bestekoak / No alimentarios	38.040	5.467	20.325	12.248

Elikagaiez besteko merkataritzak ekartzen du txikizkako merkataritzak sortutako balio erantsiaren % 67 eta enpleguaren % 62.

Elikagaien banaketaren barruan, azalera handi eta ertainek enpleguaren % 25 baino ez dute hartzen; ordea, balio erantsiari egiten dioten ekarpena % 40koa da.

Lurraldekako banaketak egonkortasunari eutsi dio azken hamar urteetan, dela balio erantsiaren, dela enpleguaren banaketan; baina Bizkaiko txikizkako sektoreak herrialde horretako aberastasunari egiten dion ekarpena handiagoa da, beste bi herrialdeetakoarekin erkatzen bada.

Europako Batasuneko guztizko merkataritzak (handizkako, txikizkako eta konponketa), horixe baita erabilgarri dagoen datu bakarra, Euskal AEn baino balio erantsi eta enplegu guztizkoaren kopuru handiagoa hartzen du: Europaren aberastasunaren % 12,6 merkataritzak ekartzen du; euskal ekonomian duen ekarpena, berriz, % 11,8koa da. Enpleguari dagokionez, 100 landun europarretatik, 15ek merkataritza-sektorean egiten dute lan; Euskal AEn, berriz, 14 dira.

Txikizkako merkataritzak 62.000 laguni ematen die lana, eta Euskal AEn guztizko aberastasunaren % 5 sortzen du

El comercio no alimentario aporta el 67% del valor añadido generado por el comercio minorista y el 62% del empleo.

Dentro de la distribución alimentaria, las grandes y medianas superficies ocupan tan sólo el 25% del empleo, pero su aportación al valor añadido alcanza el 40%.

Se mantiene la estabilidad en el reparto territorial a lo largo de los últimos años, tanto del valor añadido como del empleo, pero la contribución del sector minorista vizcaíno a la riqueza de Bizkaia es mayor si se compara a los otros dos Territorios.

El comercio total en la Unión Europea (mayorista, minorista y reparación), único dato disponible, representa una mayor proporción del valor añadido y del empleo global que en la C.A. de Euskadi: el 12,6 % de la riqueza europea es aportada por el comercio frente al 11,8% de contribución en la economía vasca. Respecto al empleo, 15 de cada 100 europeos ocupados trabajan en el sector comercial, mientras que en el caso vasco son 14.


El comercio minorista ocupa a 62.000 personas y genera el 5% de la riqueza total de la C.A. de Euskadi

Merkataritza-sektorearen salmenten bilakaera. Euskal AE

Prezio finkoak. %

Evolución de las ventas en el sector comercio. C.A. de Euskadi

Precios constantes. %




Txikizkako salmenten eta kontsumo pribatuaren bilakaera. Euskal AE

Prezio finkoak. %

Evolución de las ventas minoristas y del consumo privado. C.A. de Euskadi

Precios constantes. %



Merkataritzaren salmentek azken bosturtekoan izan duten bilakaerak erakusten duenez, merkataritzaren sektoreak bat egin du euskal ekonomiaren beste sektoreen joera hedakorrekin: 1995 eta 1996 urteak hazkunde murriztekoak izan ziren; 1998an, aldiz, hazkunde errealek % 6,1 iritsi zuten, eta 1999ko lehen seihilekoan, % 5,8.

Merkataritzaren sektoreak bat egin du euskal ekonomiaren joera hedakorrekin

Sektorearen hazkundera handizkari salmenten ibilbide onean oinarritu da; izan ere, tasa errealek % 7,5 ingurukoak izan ziren 1998an eta 1999ko lehen seihilekoan.

Txikizkako merkataritzak ere, neurri txikiagoan bada ere, portaera hedakorra izan du, kontsumo pribatuaren zuzpertzearrekin bat etorri; izan ere, prezioek zein interes-tasek egonkor iraun zuen, eta enpleguak hazkunde garbia izan zuen.

La evolución de las ventas del comercio en el último quinquenio indica que, tras los años 1995 y 1996 de exiguos crecimientos, el sector comercial se ha incorporado a la tendencia expansiva del resto de la economía vasca, con crecimientos reales que en 1998 alcanzaron el 6,1% y en el primer semestre de 1999 el 5,8%.


El sector comercial se incorpora a la tendencia expansiva de la economía vasca

El crecimiento del sector se ha sustentado en la buena marcha de las ventas de los mayoristas, con tasas reales que en 1998 y primer semestre de 1999 rondaron el 7,5%.

El comercio minorista, aunque en menor grado, también ha registrado un comportamiento expansivo, en sintonía con la reactivación del consumo privado, en el marco de la estabilidad tanto de precios como de tipos de interés, y de crecimiento neto del empleo.

Merkatu-kuota merkataritza-motaka Euskal AE. %

Cuota de mercado por tipo de comercio C.A. de Euskadi. %



Ohiko elikagai-merkataritzak merkatu-kuotaren 20 puntu galdu ditu 1986tik, azalera handi eta ertainen mesedetan, batez ere hipermerkatuetan, eta orain elikagai-adarreko salmenten % 21 biltzen dute horiek.

Europan, gehiago edo gutxiago, prozesu berdina gertatu da: salmentak banaketa-bide berrietan pilatuz joan dira. Portugalen eta Grezian baino ez da oraindik ere nagusi ohiko elikagai-merkataritza. Prozesu hori are sakonagoa da Frantzian, hipermerkatuek bereganatu duten merkatu-kuota elikagaien % 34koa baita. Gure erkidegoko kuota oso azpitik dago, eta horrek agerian uzten du sektoreak beste egitura bat duela Frantziako Errepublikan.

Pertsonen hornikuntzako eta etxearen hornikuntzako ohiko dendek, hau da, elikagaiez besteko merkataritza espezializatuak, hala ere, sektorean duten nagusitasunari eutsi diote, eta orain salmenten % 90 hartzen dute.

Hipermerkatuek ia 15 puntutan igo dute merkatu-kuota


El comercio alimentario tradicional ha perdido 20 puntos de cuota de mercado desde 1986 a favor de las grandes y medianas superficies, sobre todo de los hipermercados, que pasan a concentrar el 21% de las ventas de la rama alimenticia.

En Europa, con distintas intensidades, se da un proceso similar de concentración de las ventas en las nuevas formas de distribución; tan sólo en Portugal y Grecia el comercio alimentario tradicional se mantiene como dominante. Uno de los países donde más se ha intensificado este proceso es Francia, ya que la cuota de mercado que absorben los hipermercados es el 34% de los productos alimenticios, muy por encima de la vasca, lo que pone de manifiesto la distinta estructura del sector en el estado francés.

La tiendas tradicionales de equipamiento de la persona y equipamiento del hogar, es decir, el comercio especializado no alimentario, mantienen, sin embargo, su predominio en el sector, copando el 90% de las ventas.

Los hipermercados aumentan su cuota de mercado en casi 15 puntos

Ventas del comercio minorista por habitante. C.A. de Euskadi. Ptas.



Ehungintza eta jantzigintza sektorea dago lehen tokian biztanleko produktuen salmenten rankinean, eta guztizkoaren % 12 hartzen du; nahiz eta 1995 eta 1997 artean nolabaiteko geldialdia jasan duen.

Aisiarekin eta gorputzaren zainketa-rekin lotutako salmentak –hala nola, optikak, argazki-eta bitxi-dendak, urrin-dendak eta botikak, eta jostailu- eta kirol-dendak– batez bestekoaren ginetik daude.

Kontsumitzaileek hipermerkatuetan egin dituzten erosketak supermerkatuetan egiten dituztenen ginetik daude lehen aldiz 1997an.

Okindegiak eta gozotegiak sektorearen biztanleko salmentek gehikuntza nabarmena izan dute biurtekoan (% 9,45), eskaintzen dituzten produktuen espezializazio, dibertsifikazio eta kalitate handiagoari esker, eta ez da ahaztu behar kontsumitzaileen beharrei egokitutako ordutegiaren malgutasunari.

Aisiarekin eta gorputzaren zainketa-rekin lotutako salmentak hazi dira gehien

El sector Textil y confección ocupa el primer puesto en el ranking de ventas por habitante de productos, suponiendo un 12% del total, si bien experimenta entre 1995 y 1997 un cierto estancamiento.

Los crecimientos de las ventas por habitante de sectores relacionados con el ocio y el cuidado personal, como Óptica, fotografía y joyería, Belleza y farmacia y Jugueterías y deporte, destacan sobre la media.

Las compras realizadas por los consumidores en hipermercados superan por primera vez en 1997 a las realizadas en los supermercados.



Las ventas por habitante de Pan y pastelería experimentan un notable incremento del 9,45% en el bienio, fruto de la especialización, diversificación y mayor calidad de los productos que ofrecen, sin olvidar la flexibilidad de horarios adaptados a las necesidades del consumidor.

Las ventas relacionadas con el ocio y el cuidado personal son las que más crecen

Denda-dentsitatea* autonomia-erkidegoka

Densidad comercial* por Comunidades Autónomas

* Denda-kop. / 1.000 biz.
Nº comercios / 1.000 hab.



Gure erkidegoko txikizkako banaketaren egiturak, biztanleriaren araberako establezimendu-kopuruari dagokionez, ez du gorabeherarik izan azken urteotan, nahiz eta etengabe ireki diren azalera handi eta ertainak. Euskal Aeko batez bestekoa mila biztanleko 15,5 dendakoa da, estatuko batez bestekoa baino zertxobait handiagoa (15,1) eta 1987an zegoenaren antzekoa.

Denda-dentsitate altu hori are nabarmenagoa da Gipuzkoan. Herrialde horretan indizea milako 16,8ra iristen da, eta beste muturrean Araban dago, mila biztanleko 13,7 dendekin.

Balearrek, Kataluniak eta Madrilek dituzte ratio altuenak; Balearren kasuan milako 20ra hurbiltzen da.

Euskal Aetik hurbilen dauden erkidegoetan, denda-dentsitatea gure erkidegokoaren antzekoa da, Kantabrian izan ezik. Erkidego horretako indizea, Asturiasekoarekin batera, estatuko baxuenetakoa da.

Akitania eskualdeak, aldiz, guregandik oso hurbil egon arren, merkataritza-egitura erabat desberdina du, eta ratio baxuagoa du (1.000 biztanleko 8,6 txikizkako denda).

Hiru euskal hiriburuek herrialde mailan dagoen joerari eusten diote, baina indize askoz handiagoekin: Donostiak milako 19,7 lortzen du; ondoren Bilbao dago, mila biztanleko 18,7 dendarekin, eta Gasteiz urrunago dago, milako 15eko indizea baitu.

Euskal denda-dentsitatea estatukoaren antzekoa da, baina Europakoa baino handiagoa

La estructura de la distribución minorista vasca, en lo que hace referencia al número de establecimientos en relación a la población, se mantiene estable en los últimos años, a pesar de la ininterrumpida apertura de grandes y medianas superficies; la media vasca se sitúa en 15,5 comercios por mil habitantes, ligeramente superior a la media estatal (15,1) y similar a la que existía en 1987.

La alta densidad comercial vasca es más acusada en Gipuzkoa, donde el índice alcanza el 16,8 por mil, situándose en el otro extremo Álava, con 13,7 comercios por cada mil habitantes.

La Comunidades de Baleares, Cataluña y Madrid son las que presentan los ratios más altos, con índices que en el caso de Baleares se acerca al 20 por mil.

En las regiones más próximas a la C.A. de Euskadi la densidad comercial es muy similar a la vasca, con la excepción de Cantabria que junto a Asturias presentan los índices más bajos del Estado.

La región de Aquitania, sin embargo, aunque geográficamente muy próxima, tiene una estructura comercial totalmente distinta, y presenta un ratio de 8,6 comercios minoristas por cada 1.000 habitantes.

Las tres capitales vascas mantienen la tendencia registrada a nivel de territorio, pero con índices claramente superiores: San Sebastián alcanza un 19,7 por mil, Bilbao se sitúa a continuación con 18,7 comercios por mil habitantes y Vitoria, más alejada, presenta un índice de 15 por mil.

La densidad comercial vasca es similar a la estatal pero superior a la europea

Txikizkako merkataritzaren salmentarako azalera autonomia-erkidegoka. m²


Superficie de venta del comercio minorista por Comunidades Autónomas. m²

	Baleares	Nafarroa / Navarra	C. Valenciana	Extremadura	Canarias	Cataluña	Aragón	ESTATUKO BATEZ BESTEKOA MEDIA ESTATAL	Madrid	La Rioja	Castilla y León	Andalucía	EUSKAL AE C.A. de EUSKADI	Castilla-La Mancha	Murcia	Galicia	Cantabria	Asturias
Salmentarako batez besteko azalera Superficie media de venta	108	113	100	102	123	86	83	91	73	82	93	102	72	86	90	96	92	90
Salmentarako biztanleko azalera Superficie venta por habitante	2,1	1,7	1,6	1,6	1,6	1,5	1,4	1,4	1,3	1,3	1,3	1,3	1,2	1,2	1,2	1,2	1,2	0,9

Denda-dentsitatea* Europako Batasunean

Densidad comercial* en la Unión Europea

* Denda-kop. / 1.000 Biz.
N.º Comercios / 1.000 Hab.



Euskal AE estatuko batez bestekotik urrundu da eta azken tokietan dago, dela salmentarako batez besteko azalera, dela biztanleko salmentarako azalera: lehena 91 m²koa da estatuan, eta 72 m²koa Euskal AEn. Biztanleko, ratioa milako 1,2koa Euskal AEn, eta 1,4koa batez beste estatuan.

Euskal AEko txikizkako denden batez besteko tamaina (m²tan) estatuko batez bestekoaren azpitik dago

Euskal AEko merkataritza-egitura, Europako Batasunaren aldean, herrialde mediterraniar direlakoekin pareka daiteke; izan ere, herrialde horietan oraindik ere nagusi dira banaketa-bide ohikoak.

Sektorearen nahitaezko modernizazioa dagoeneko gertatu da Europako Batasuneko herrialde dinamikoenetan, eta, dirudenez, sektorearen kontzentrazioa garamatza, hau da, enpresa gutxiago, baina handiagoak.

La C.A. de Euskadi se aleja de la media estatal y ocupa las últimas posiciones, tanto en superficie media de venta de los comercios como en superficie de venta por habitante; la primera es de 91m² para el Estado y de 72m² en el caso vasco. Por habitante, el ratio sitúa a Euskadi en 1,2 por mil frente a 1,4 de media en el Estado.

El tamaño medio en m² de los comercios minoristas vascos está por debajo de la media estatal


La estructura comercial vasca en relación a la Unión Europea es equiparable a la de los países llamados mediterráneos, que mantienen de forma predominante formas de distribución más tradicionales.

La necesaria modernización del sector, que en los países más dinámicos de la Unión Europea ya se ha producido, parece conducirnos a la concentración del sector; es decir, menor número de empresas, pero de mayor tamaño.

Salmentarako azalera* udalerrrika

Superficie de venta* por municipio

* m² / 1.000 Bizt.
m² / 1.000 Hab.



Euskal hipermerkatuen* egiturazko ezaugarriak

Características estructurales de los hipermercados* vascos

* ≥ 2.500 m²

	EUSKA AE / C.A. DE EUSKADI	Araba / Álava	Bizkaia	Gipuzkoa
KOPURUA / NÚMERO	18	2	9	7
Batez besteko azalera m ² Superficie media m ²	7.846	5.426	7.370	9.150
1.000 biz.ko azalera Superficie por 1.000 hab.	67,3	38,3	58,2	94,7

Euskal AEn milioi biztanleko 8,6 hipermerkatu daude; ratio hori estatukoa baino handiagoa da (6,0), baina oso urrun dago Europako zenbait herrialdek dutenetik, hala nola Frantziarenetik (18,0).

Azalerari buruzko datuak Espainiako Erresumako batez bestekoaren parean jartzen dute Euskal AE, hipermerkatuen batez besteko tamainari dagokionez (m^2), eta Frantziako Errepublikaren gainetik (hango batez bestekoa 5.800 m^2 koa zen 1996an).

Lurralde historikoka, aldeak nabarmenak dira: Gipuzkoa gailentzen da, biztanleko hipermerkatu gehiago eta batez bestekoa baino handiagoak baititu; Araban, aldiz, alderantzizkoa gertatzen da.

Euskal AEko hipermerkatu-dentsitatea Estatukoaren parean dago

En la C. A. de Euskadi existen 8,6 hipermercados por millón de habitantes, ratio superior a la media estatal (6,0) pero muy lejos de algunos países europeos como Francia (18,0).

Los datos de superficie sitúan a la C.A. de Euskadi en sintonía con la media estatal española, en cuanto a tamaño medio en m^2 de los hipermercados, y por encima del estado francés, cuya media se situaba en 1996 en 5.800 m^2 .

Por territorios históricos se producen notables diferencias, destacando Gipuzkoa que dispone de más hipermercados por habitante y más grandes que la media, y Álava en sentido contrario.

La densidad de hipermercados en la C.A. de Euskadi, en consonancia con la del Estado

Denda-kopuruaren eta landun-kopuruaren banaketa. 1997

Distribución del número de comercios y personal ocupado. 1997

	EUSKAL AE C.A. EUSKADI		ARABA ALAVA		BIZKAIA		GIPUZKOA	
	Establezimenduak Establecimientos	Enpleguak Empleos	Establezimenduak Establecimientos	Enpleguak Empleos	Establezimenduak Establecimientos	Enpleguak Empleos	Establezimenduak Establecimientos	Enpleguak Empleos
Txikizkako merkataritza guztira								
Total Comercio minorista	32.572	61.719	3.891	8.590	17.300	32.832	11.381	20.297
Hipermerkatuak Hipermercados	18	2.799	2	279	9	1.376	7	1.144
Supermerkatuak Supermercados	214	3.113	25	558	128	1.805	61	750
Beste elikagai-denda ez-espezial. Otro no especializado. alimentos	1.728	3.424	190	375	901	1.758	637	1.291
Saltoki handiak; bestelakoak Grandes almacenes; otros	498	3.287	58	775	276	2.262	164	250
Fruta- eta barazki-dendak Frutas y verduras	1.149	1.637	100	149	709	1.009	340	479
Harategiak eta antzekoak Carne y cárnicos	2.787	4.332	329	572	1.456	2.170	1.002	1.590
Arrandegiak Pescados	1.293	2.005	157	268	644	969	492	768
Okindegiak eta gozotegiak Pan y pastelería	2.356	3.184	292	436	1.424	1.837	640	911
Elikagaiez bestekoa Otro de alimentación	2.305	3.185	319	486	1.174	1.583	812	1.116
Urrin-dendak; botikak Belleza; farmacias	1.558	3.051	187	400	814	1.605	557	1.046
Ehun- eta jantzi-dendak Textil y confección	5.444	9.239	693	1.241	2.834	4.847	1.917	3.151
Oinetako- eta larru-dendak Calzado y cuero	1.086	1.805	132	245	541	914	413	646
Altzari-dendak eta antzekoak Muebles y hogar	1.821	3.660	244	566	942	1.880	635	1.214
Etxeko tresna elektrikoien dendak Electrodomésticos	1.145	2.077	120	244	619	1.094	406	739
Burdindegiak, pintura- eta beira-dendak Ferreterías, pinturas y vidrio	1.107	1.861	143	276	588	944	376	641
Liburu- eta paper-dendak Librerías y papelerías	1.590	2.283	175	290	876	1.222	539	771
Optika, argazki- eta bitxi-dendak Óptica, fotografía y joyería	1.085	2.057	138	317	535	1.036	412	704
Jostailu- eta kirol-dendak Jugueterías y deporte	850	1.676	87	177	447	859	316	640
Elikagaiez besteko bestelakoak Otro no alimentario	2.280	3.983	258	557	1.150	2.045	872	1.381
Bigarren eskuko ondasunak Bienes de segunda mano	128	227	25	39	46	96	57	92
Ez establezimenduetan No en establecimientos	915	1.120	80	116	531	622	304	382
Kontsumo-gaien konponketa Reparación artículos consumo	1.215	1.714	137	224	656	899	422	591

Txikizkako banaketa-arloan lan egiten duen langile kopurua, euskal ekonomiako landun-kopuru osoaren aldean, % 12n egonkortu da azken urteetan.

Euskal AEko batez besteko enplegua estatukoaren antzekoa da, baina Europakoa baino txikiagoa

Euskal AEko txikizkako merkataritzak guztizko enpleguaren (handizkako eta txikizkako merkataritza) portzentaje altua biltzen du: merkataritza-sektorean lan egiten dutenen % 67k txikizkako salmentako dendetan lan egiten dute. Kopuru hori Europako Batasunekoaren antzekoa da.

Batez besteko enplegua enpresako 2,1era iristen da Euskal AEko merkataritzan. Kopuru hori estatukoaren (2,3) eta Europako beste herrialde batzuenaren –hala nola Italiaren (2,2)– antzekoa da, baina berriro ere urrun dago Europako Batasuneko batez bestekotik (4,0); izan ere, sektoreak dinamismo eta tamaina handiagoa du Europako iparraldeko herrialdeetan.

El porcentaje de personas que trabajan en el sector de distribución minorista sobre el total de personal ocupado en la economía vasca se ha estabilizado en los últimos años en el 12%.

El comercio minorista en la C.A. de Euskadi concentra un alto porcentaje del empleo global del sector comercial (comercio mayorista y minorista): el 67% de las personas que trabajan en el sector comercial lo hacen en comercios de venta al por menor. Esta cifra es similar a la que se da en la Unión Europea.


El empleo medio es similar al del Estado, pero inferior al europeo

El empleo medio sitúa al comercio vasco en 2,1 ocupados por empresa, cifra muy similar a la del Estado (2,3) y otros países europeos como Italia (2,2), pero se encuentra de nuevo alejada de la media de la Unión Europea (4,0), debido a un mayor dinamismo y tamaño del sector en los países del norte de Europa.

Txikizkako merkataritzaren egitura. Establezimenduen ehunekoak

Estructura del comercio minorista. Porcentaje de establecimientos

Elikagaiak Alimentario
Elikagaiez besteak No alimentario



1997an txikizkako merkataritzan diharduten establezimenduen kopurua 32.572koa da, eta 61.719 laguni ematen diete lana; horietarik, % 36 elikagaienak dira, duela hamar urte baino 9 puntu gutxiago. Enpleguari dagokionez, beherapena 4 puntu portzentajezkoena baino ez da: 1987an elikagaiak nagusi diren dendetako enplegua % 42koa zen, eta 1997an, % 38koa.

Azken hamar urteetan, beraz, zertxobait igo da establezimenduko batez besteko enplegua elikagaien txikizkako merkataritzan, azalera ertain eta handi gehiago irekitzearen ondorioz.

Elikagaiez besteko sektorean, aldiz, batez besteko enplegu-maila baxuari eutsi zaio, are 1987an baino bi hamarren txikiagoari: 1,8 landun establezimenduko.

Hiru lurralde historikoek egitura oso antzekoak dituzte, elikagaien zein elikagaiez bestekoen establezimenduen ehunekoei dagokienez, eta bilakaera berdintsuak izan dituzte azken hamar urteetan.

Batez besteko enplegua zertxobait igo da elikagai-merkataritzan

En 1997 el número de establecimientos dedicados al comercio al por menor es de 32.572, ocupando a 61.719 personas; de ellos, el 36% son de alimentación, 9 puntos menos que diez años antes. En cuanto al empleo, la disminución es sólo de 4 puntos porcentuales: en 1987 el empleo en los comercios con predominio en alimentación era del 42% y en 1997 del 38%.

En los últimos diez años, por tanto, ha aumentado ligeramente el empleo medio por establecimiento en el comercio minorista alimentario, como consecuencia del mayor número de medianas y grandes superficies.


En el sector no alimentario, por contra, se mantiene un bajo nivel de empleo medio, incluso dos décimas menor que en 1987: 1,8 ocupados por establecimiento.

Los tres territorios históricos mantienen estructuras muy similares, en cuanto a porcentajes de establecimientos de alimentación y no alimentación, y han experimentado evoluciones paralelas en los últimos diez años.

El empleo medio en el comercio alimentario aumenta ligeramente


Enpleguaren banaketa sexuka eta kontratu egoeraka. %

Distribución del empleo por sexo y situación contractual. %



Hornikuntzak txikizkako merkataritzan. %

Equipamiento en el comercio minorista. %



Emakumeen ehunekoak % 60 gainditzen dute sektore osoan, eta 2 puntu igo dira 1995etik.

Euskal AEko txikiz- kako merkatarit- zak, batez ere, emakumeei eta alokatuei ematen die lana

Emakumeen garrantzi handiago hori ia sektore guztietan gertatzen da; dena dela, elikagaien sektorean ehunekoak % 62tik gorakoak dira (1995ean baino 3 puntu gehiago); elikagaiez bestekoan, berriz, emakumeen ehunekoak % 60ra iristen dira, hau da, 1995ean baino puntu bat gehiago.

Emakume landun gehien duten sektoreen artean, honako hauek daude: hipermerkatuak, urrin- eta edergai-dendak, ehun- eta oinetako-dendak, eta okindegiak.

Enpleguaren egitura gertatzen ari den aldaketa landunen kontratu-egoeran islatu da: autonomoek behera egin dute, eta alokatuek, aldiz, gora.

Ohiko dende pixkanaka teknologia berriak sartu dituzte merkataritza-negozioan: ordenagailuak ohiko elikagai-denden % 13an baino ez dauden aurren, kopuru hori 1995ekoaren gainetik dago (3 puntu gehiago).

El porcentaje de mujeres supera el 60% en el conjunto del sector, con un aumento de 2 puntos desde 1995.

El comercio minoris- ta vasco ocupa predominante- mente empleo femenino y asala- riado

Este mayor peso femenino se da prácticamente en todos los sectores, si bien en el alimentario su porcentaje supera el 62% (3 puntos más que en 1995), mientras el no alimentario sitúa el porcentaje femenino en el 60%, un punto más que en 1995.


Se mantienen como sectores punteros en cuanto a empleo ocupado femenino los Hipermercados, Perfumería y belleza, Textil y zapaterías y Panaderías.

El cambio paulatino en la estructura del empleo se refleja en la situación contractual del personal ocupado, con un descenso de los autónomos y el paralelo aumento de los asalariados.

El comercio tradicional incorpora progresivamente las nuevas tecnologías al negocio comercial: la presencia de ordenadores, aún cuando sólo se produce en el 13% de los comercios tradicionales de alimentación, supone 3 puntos más que en 1995.

Merkataritza-marjina salmenten gainean. %

Margen comercial sobre ventas. %



Txikizkako merkataritzako enpresa nagusiak alfabeto-hurrenkeran

Principales empresas de comercio minorista por orden alfabético

ANBAO DISTRIBUCIÓN S.A. (FOSCO)
BAZTAN S.A.
BIDE ONERA VASCA S.C.L.
CENTRO LAGUN S.A.
CENTROS COMERCIALES PRYCA S.A.
CHOYMO S.A.
CIRCULO DE LECTORES S.A.
CORTEFIEL S.A.
DECATHLON ESPAÑA S.A. SDAD.
UNIPERSONAL
DEMAN S.A.
DISTRIBUCIÓN SUPERMERCADOS S.A.
DISTRIBUIDORA INTERNACIONAL DE ALIMENTACIÓN S.A. (DIA)
EKOSA S.A.
EL ASTORGANO S.A.
EL CORTE INGLÉS S.A.
EROSKI S. COOP. L.

GENERAL ÓPTICA S.A.
GOASAM S.A. (ZARA)
LIDL AUTOSERVICIOS DESCUENTO S.A.
NORALCO S.A.
PLANTA CRÉDITO S.A.
PRYCA NORTE S.A.
PUNTO-FA S.L. (MANGO)
SERVICIOS CONCERTADOS IZARRA S.A.
SOCIEDAD HISPÁNICA DE DESARROLLO S.A. (ALCAMPO)
SUPER ASTOR S.L.
SUPERMERCADOS CEAL S.A.
SUPERMERCADOS ERCORECA S.A.
SUPERMERCADOS SABECO S.A.
VENTAS INTERNAC. DE PERFUM. Y COSMET. VASCA, S.A. (ETXEZURI)

Txikizkako merkataritzaren batez besteko majina % 27koa izan zen 1997an, 1995ekoaren antzekoa.

Elikagaiez besteko merkataritzak, oro har, elikagai-merkataritzak baino marjina altuagoekin lan egiten du.

Egiaztatu da, bestalde, marjina txikienak azalera ertain eta handietan gertatzen direla: hipermerkatu eta supermerkatuek % 16ko marjina izan dute, duela bi urte adinakoa.

Establezimenduko batez besteko negozio-bolumenak goranzko joerari eutsi dio, sektorean nagusitu bide den kontzentrazio motel bezain etengabekoarekin bat etorritz. Merkataritzaren salmentak 34,5 pezeta-milioioak izan ziren 1997an, 1995ean baino % 4,2 altuagoak.

Produktibitatea, enplegatuko balio erantsiaren zein enplegatuko salmenten kopurutan neurtua, hazi egin da 1995-97 biurtekoan: % 5,9 eta % 5,2, hurrenez hurren.

Europako Batasunaren aldean, gure erkidegoko merkataritza-sektorearen produktibitatea (109.000 ecu salmentetan landuneko) Europako batez bestekoaren azpitik dago (114,0). Batez besteko hori berriro ere zenbait herrialderen (hala nola Frantzia, herrialde nordikoak, Belgika eta Luxenburgoko) produktibitate altuek baldintzatzen dute. Dena dela, Erresuma Batua, Holanda, Irlanda eta Portugalen gainetik dago.

Sektorearen merkataritza-marjinak ez du gorabeharrik izan

El margen medio del comercio minorista fue en 1997 del 27%, similar al de 1995.

El comercio no alimentario, en general, trabaja con márgenes más altos que el comercio alimentario.

Se constata que los márgenes más pequeños del sector se dan en las medianas y grandes superficies: hipermercados y supermercados registraron un margen medio del 16%, el mismo que dos años antes.

El volumen de negocio medio por establecimiento sigue una tendencia creciente, en sintonía con la lenta pero progresiva concentración que parece haberse instalado en el sector. Las ventas por comercio fueron en 1997 de 34,5 millones de pesetas, un 4,2% más elevadas que en 1995.

La productividad, medida tanto en términos de valor añadido por empleado como de ventas por empleado, ha crecido en el bienio 1995-97, concretamente un 5,9% y 5,2%, respectivamente.

Comparativamente con la Unión Europea, la productividad del sector comercial vasco (109.000 ecus en ventas por ocupado) está por debajo de la media europea (114,0), media que de nuevo viene condicionada por las altas productividades de países como Francia, los países nórdicos, Bélgica y Luxemburgo. Está por encima, sin embargo, de Reino Unido, Holanda, Irlanda y Portugal.

El margen comercial del sector permanece estable

INFORMAZIO-ESKAERA

Galderaren bat egin nahi baduzu edo datu gehiago behar baduzu, hemen aurkituko gaituzu:
EUSTAT (Euskal Estatistika-Erakundera / Instituto Vasco de Estadística)

Donostia-San Sebastián, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 75 00

Faxa: 945 01 75 01

e-mail: eustat@eustat.es

www.eustat.es

SOLICITUD DE INFORMACIÓN

Para cualquier consulta o ampliación de los datos, pueden dirigirse a:
EUSTAT (Euskal Estatistika-Erakundera / Instituto Vasco de Estadística)

Donostia-San Sebastián, 1

01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 75 00

Fax: 945 01 75 01

e-mail: eustat@eustat.es

www.eustat.es



Eustat



Erakunde Autonomiadura
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO